

# K A T A K O N B A K

Inperioaren kondairan ain ospe aundia izan duen Via Appia-tik aurrera zoazela daude San Calixto-ren katakonbak. Emen, Via edo bide onetan dago Quo vadis-koa deritzan kapillatxoa. Izan ere, kontu zaharrek diotenez emen agertu zitzaion Jesukristo, Neron-en eraso-koan Erroma-tik igesi zebillen San Pedro-ri. Jauna ikustean arrituta, "Quo vadis?", galdetu omen zion Pedro-k: nora zoaz? Eta Jesus-ek: "Erromara, berriz gurutziltzatua izateko". Derrefente itzuli zen San Pedro Erroma-ra: Vatikanoko muiñoan martirizatu zuten. Ipuari sinistu nai badiogu oraindik ikus ditzakegu Jesukristo-k Via Appia-ko arrietan utzi zituen oinatzak. San Sebastian-en elizan bereratzen dira...

Appio Claudio-ren bide alde bietatik illarriz edertuta zegoen antxiña. Erromatarrak modu askotara illobiratzten zituzten beren illak. Ba ziren kanposantu jeneralak, baiña zerbait ziren familiariek bakoitzak bere sepultura izaten zuten (bide ertzean askotan) edo ta baita norberak berea bakarria ere: orrela Eszpcion-darrak emen zeukaten berea, eta emen altxatzen dira Priscila-rena eta Cecilia Metela-rena. Alare, bide au ez baitzen edozein bide, "patrizioak" bakarrik egin zitzaizketen sepulturak bide onen barna. Odol urdifeoak, esango genuke gaur.

Ia erabat ondatuak daude monumentu aiek dagoeneko, baiña ondakinen mistikaz eta Erroma-ko zelaiaren bizitza leunaz, gutxi bezalako ederrez jantzia dago parajea.

Aundiki oenak baiño ikusle geiago erakartzen dute gaur kristau gauzaez illerriek: katakonbak. Erroman katakonba asko dago, ta ez kristauenak bakarrik. Paganoenak eta juduenak ere bai. Paganook, ordea, etzituzten kristauak eta juduek bezin katakonba luzeak zulatzen. Katakonbak urratzeko oiturak, kristauen artean beifepein, pobreeri sepultura egokia eman nai izatetik sortua dugula dirudi. Kristautasuna erri txiroan zabaldu zen ba, lehenbizi. Geroago, kristauak komunidadea bat osatu zutenean, komunidadearen illerri bihurtu zituzten katakonbaok.

San Calixto-ren katakonbak ezagunenetakoak ditugu. Luzeak dira, ikaragarri luze. Oraindik zearo esploratu gabe.

Joan den urtean Aita Santua ikustera etorri ziren ijitoekin sartu nintzan ni lehenengo aldiz San Calixto-ren katakonbetara. Au dugu Erroma-ko kristau kanposantu aundiena. Unkigarria da katakonbetako sartuera. Nire ondoan ijitoak, pobreak oek ere, etzuten itz bat esaten, dena begi zudela. Biotza kizkurtzen du lur gorri erre artan eginda-

ko galerietan aurrera ibiltzeak. Beñola, onelaxe sartuko ziren kristauak, ixilixilik, ildako bat ekartzen, bearbada martiri bat, Aita Santuren bat apika. Gure bi aldeetan millaka kristauen atsedeen tokiak.

Lurraren kolore umillak eta argi eskasak fedearen asiera urteetako giroan sartzen gaitu. Aita Santuen kriptak, Tarsizio-ren bazterra, Santa Zezilia-ren illobia gogoratzen duen irudi ederra... ikusten genituen. Baiña dena gutxi da lurra berak duen indarraren aldean. Lurra mintzatzen zaitu ezer baiño sarkorrako, kristau zaharren bizimoldeaz.

Gaur ia ez dago santurik katakonbetan. Denak eraman dituzte norabait, batez ere barbaroak ez arrapatzeko izkutatu bearrean aurkitu zirenean.

Emen ikusi nituen kristau pintura zaharrenetarikoak ere: bataioa, Eukaristia, sinboloz esanak. Galeria medar luzeak, altuan bai zortzi-amar metro, (zabalean metro ta erdi ortxe ortxe): eriotzearen eta pizkundearen bideak, fedearen sinbolo atsegingarri ornitutuzten. Arrokeriarik gabeko esperantza zaintsuaren irudiak, Orma umilletan, ostanta kolorea galduta, bearbada zoriona fedearik ekarri zion esklaboren batek pinatatuta. Emen daude gurasoek semeari jarritako nai-

gubezko ta itxaropenezko itzak, Eliza gaztearen larriak, zismaren baten testimonioa, eriotzeko urtebetetzean illobietara ekarritako janari ta usai gozo ontziak. Aita Santu Damaso-k bere amari ipifinitako epitafio ausiaren zati bat.

Ia bi milla urteren urruntasunetik begiratuta dena aundiki ikusi nai genuke kristautasunaren asiera. Ta txiki izatearen aunditasun pozgarria da berea. Dena umilla da emen. Erri umillaren illerria, jende pobreaken artea, fedearen beste aunditasunik ezuen erriaren bizitza xehea.

Garai artan oitura zen urtean bein sendiko illobi aurrean lehenagokoak gogoratu ta ospatzea. Illobiak apaintzen zituzten urteburu oetan, eta janalditxo bat egin aldamenean. Kristauak Eliza zuten sendi. Eta martiriak begiratzen zituzten batez ere anaitzat, Kristorekin bategiteko kristau asmoa ifork baiño obeto aiek burutu zuten ezkerero. Orrela sortu zen illobi aurrean urtean bein martiriaren orolpena ospatzeko oitura. An egindako janaria, III-garren eunaldirako Eukaristia izaten zen. Onela bilakatu ziren katakonbak kulto leku, asieran kanposantu uts ziren-eta. Eukaristia bitartean martiriaren eriotze goraberak kontatzen zituzten, eta obispoak (Aita Santuak) ildakoen izen-zerrenda irakurri. Polliki polliki emetzen zetorkigun kristau kalendariora. Zer ote zen nagusiaren izkutuka zetorren esklaboarentzat Eukaristia-  
ren poza? Zer martiriaren emaztearentzat, semeentzat?

Askok pentsatzen dute ka-

takonbak persekuzioetan izakutatzeko izaten zirela. Ez da orrelakorik. Kanposantutarako uste utsetan egiñak dira, berez. Egia da ñak dira, berez. Egia da denporarekin Eukaristia arriskurik gabe ospatzeko leku aproposak gertatu zirela, baiña jeneralean kristauak etxeetan ospatzen zuten Eukaristi-afaria. Katakombetan ifioiz kristauen kontrako zerbait izan bazen, erri amorratuaren geiegikeria izandu zen, ez Estaduaren egintza. Erromatar legeetan ikutu ezifizekoak eta guztiz sakratuak genituen illobiak, eta kristauenak ere legeak babestuta zeuden. Onegatik, persekuzio aldietan kristauak bein baiño geiagotan bilduko ziren katakombetan, noski. Uraxe zuten arrisku gabeko leku seguru bakarra.

“Katakomba” izenak ez du kanposantu esanaia berezko, oiturak erantsia baizik. Ezta kristauena bakarrik ere, gorago esaten nuenez. Kristauak orduko oitura batez baliatu ziren, eta illobietako idazkiak berak juduenetakoen berdina ditugu: “Pakean”, “zintzoen artean atsedeen dezazula”, etabar. Katakomba itza griegotik dator, eta kristauen kanposantu bat (San Sebastian-ena, alegia, antxiñakoena) zegoen tokiaren izena da. “Ibarren sakona”, edo “sakona” soilik, esango genuke euskeraz.

San Sebastian-en katakonbak ditugu San Calixto-  
renak batean ezagutuena. Emen obiratu omen zituzten San Pedro-ren eta San Paulo-ren gorputzak (Valeriano-  
ren urte zailletan, agian), lehenagoko tokietatik alda-

tuta, esaten denez. Diokleziano-ren mendean martirizatutako San Sebastian gudaritari zor dio izena. Emengo pinturak bestelako noratasuna agiri dute: Jesus aurra astoaren eta idiaren artean (gai onekin ez dakusgu au besterik katakombetan), usoak, arraia (kristauen ezaugarria, griegoz arraiaren izenak dituen letrak Jesukristo-ren anagrama egiten dutelako). Santa Domitila-ren katakombetan daukagu ezagutzen den Artzai Onaren irudirik zaharrenetako (II eunaldikoa). Katakombetako artea sinbologian oifarritzen da oso osorik, orduko kristauen bizitza guztiaren gisan. Persekuzioen zenbaitezkoa bera sinbolo bat dugu, ez zenbaki zeatz: amar plaga Egiptoko-koen antzera zeindu ziren amar persekuzio.

Azkeneko katakonba oek frantziskotarren ardurapean daude. Salesianoenean San Calixto-  
renak.

Katakomben garaitik gaur arterokoan gauza asko, gelegi, pasatu dira Elizaren gainetik. Orain, Konzilioaren bidetik, berritze aldiaren sartu generala, ta asierako iturburura itzuli bearra noiznai airtortzen dugunean, katakonbaon illunak, ixiltasunak eta umiltasunak zerbait erakutsi dezaigukete. Martiriaren gorputz asko atera zituzten katakombetako pake ixilletik, Basilika bikaiñetan gordetzeko. Ederki daude. Guk ordea, atzera itzuli bear dugu katakombetako umiltasunera, Artzai Onaren ondora, bataioko pintura lausoetara. Berriz katakombetako lurpe apalera.

A. José Azurmendi.